

BERGARAKO UDALAREN ETA BADIHARDUGU ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA EUSKARAREN GERRA OSTEKO HISTORIA SOZIALA BERGARAN EGITASMOA ELKARLANEAN OSATZEKO.

Bergaran, bi mila eta hogeita hiruko maiatzaren 22an

BILDU DIRA

Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Udaleko alkatea Bergarako Udalaren ordezkaritzan.

Eta bestetik, Asier Sarasua Aranberri, Badihardugu Euskara Elkartearen lehendakaria, elkarte horren izenean. Azken horrek alkate jaunaren aurrean zinpean aitortu du bera eta berak ordezkatzen duen elkartearen ez daudela Estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak aurreikusitako debeku kasuetan.

Hauek dira elkartearen datu fiskalak eta jakinarazpenetarakoak: IFK: G20733416, Markeskua jauregia - Otaola hiribidea 1. 20.600 Eibar (Gipuzkoa). Helbide elektronikoa: admin@badihardugu.eus

Bi aldeek elkarri aitortzen diote ordezkatzen duten entitatea ordezkatzeko eta behartzeko gaitasuna eta, hala, honakoa

ADIERAZI DUTE

- 1.- Badihardugu elkarteak hainbat urte daramatza Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak bildu eta hedatzea helburu duen Ahotsak proiektua garatzen. Proiektu horren barruan Badiharduguk 2020-2025 aldirako finkatutako helburu nagusia 1950-1980 hamarkadetako historia eta bizipenak jasotzea da.
- 2.- Bergarako Udalak, bere aldetik, euskararen gerra osteko historia soziala jaso eta zabaltzeko egitasmoa bideratzea du helburu.
- 3.- Hori horrela izanik, bi entitateok interesgarritzat jo zuten bion helburuak aseko dituen elkarlan egitasmo bat bideratzea eta hala elkarlanerako hitzarmenak sinatu dituzten 2019tik 2022ra bitartean.

Orduko ildoari jarraiki, bi aldeek honako klausulak dituen hitzarmena egitea onartu dute:

KLAUSULAK

LEHENENGOA: Badihardugu euskara elkarteak Euskararen gerra osteko historia soziala Bergaran egitasmoa gauzatzeko hainbat lan bideratuko ditu; zehazki hitzarmen honen eranskinean jasota datozenak, hitzarmena sinatzen denetik 2023ko urte bukaera bitarte.



BIGARRENA: Bergarako Udalak **6.680 euroko** diru-laguntza emango dio proiektu hori burutzeko Badihardugu euskara elkarteari.

Diru-laguntza hori 3 zatitan emango da, era honetan: hitzarmena sinatzean %30, 2023ko uztaillean %30 eta 2023ko abenduan %40. Azkeneko zatia ordaintzeko, aurrez ekintzaren memoria, balantze ekonomikoa eta gastuen zuritze-agiriak aurkeztu beharko dira.

Gastua honako aurrekontu partidari egotziko zaio: *Transferentziak hainbat talde*. 1 3350.481.335.20.01 2023 (B.K. 465).

HIRUGARRENA: Horretaz gain, Badihardugu euskara elkarteak honako konpromisoak hartzen ditu:

- a) Ekintzaren gaineko zabalkunde-oharretan Bergarako Udalaren laguntza jaso izana adieraziko du.
- c) Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketetan egunean dagoela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.
- d) Bergarako Udalaren aurrean ziurtatu beharko du baldintza guztiak betetzen dituela, hala nola, diru-laguntza jasotzen duen zerbitzuaren jarduera eta helburua betetzen direla.
- e) Udalak egin litzakeen ikuskapenak erraztuko ditu.
- f) Bergarako Udala jakinaren gainean jarriko du baldin eta Udalak diruz laguntzen duen jarduerarako beste diru-laguntzarik lortuz gero.

Beste diru-laguntzaren bat jasoko dela jakin bezain azkar jakinarazi behar zaio Udalari, eta, betiere, azken zatia ordaindu baino lehen.

g) Gutxienez sei urtez gordeko ditu jasotako diruari eman zaion erabilera agertzen duten agiri originalak.

LAUGARRENA: Udalak emango duen diru-laguntzaz gain helburu bera duen beste edozein diru-laguntza ere jaso ahal izango da.

Hala eta guztiz ere, diru-laguntzak (Udalarenak bakarrik edo beste batzuenekin batuta) ezingo du inola ere gainditu diruz laguntzen den jardueraren kostua.

BOSGARRENA: Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz edo, Udalaren laguntzaz gain, beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.

SEIGARRENA: Diru-laguntza berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Diru-laguntza bete beharreko baldintzak bete gabe jasotzea.
- b) Diru-laguntza erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

Edozein arrazoiengatik, diru-laguntza (osoa edo zati bat) itzuli beharra balego, diru kopuru hori zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko da.

ZAZPIGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, diru-laguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa, eta lege hau garatzen duen



**Bergarako
Udala**

erregelamendua, 2006ko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartua, eta Bergarako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra aplikatuko dira.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean bikoiztuta sinatzen dute.



Badihardugu
Deba Ibarreko Euskera Elkartia

Asier Sarasua Aranberri
Badihardugu euskara elkarteko
presidentea



Gorka Artola Alberdi
Bergarako alkatea

EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA BERGARAN

Bergarako Udalak eta Badihardugu Euskara Elkarteak Bergarako ahozko ondarea biltzeko proiektua abiarazi zuten 2003an (ahotsak.eus/Bergara).

Bergarako Ahotsak proiektuan erabilitako metodologia berarekin jarraituta, ildo berri bat jorratzeari ekin genion 2019an. 2022ra bitartean, Bergarako euskararen historia soziala jasotzeko helburuarekin hainbat lan egin ditugu herrian:

- Ahotsak-en jasota zeuden testigantzen hustuketak egin ostean galdetegia prestatu dugu.
- Elkarrizketa berriak egin dira: 26 hiztunen lekukotza jaso da guztira, 24 zintatan.
- Egindako elkarrizketa guztiak kodifikatu dira eta pasarteak proiektuari dagokion orrian sareratu ditugu.

2023. urtean, proiektuak jarraipena izango du eta, besteak beste, liburua prestatuko dugu. Hau horrela, hurrengo lanak egitea aurreikusten dugu:

1. Sei elkarrizketa berri egin
2. Mintzodromoko grabaketak egin (bi langile)
3. Jasotako testigantza berriak kodifikatu; ondoren, pasarteak editatu eta sareratu
4. Proiektua bideratzeko bilerak egin
5. Liburua osatu eta prestatu

Aurrekontua:

Elkarrizketa berriak egin	6 elkarrizketa	1.128 €
Mintzodromoa	5 lan-ordu x 2 langile	258 €
Zintak kodifikatu	8 grabazio-ordu	1.504 €
Bideo-pasarteak editatu eta sareratu	100 pasarte	1.400 €
% 50ko deskontua bideo-artxiboak editatu eta sareratzeko prozesuan		-700 €
Proiektua bideratzeko bilerak	120 lan-ordu guztira	3.090 €
Liburua prestatu		
GUZTIRA		6.680 €

Eibarren, 2023ko martxoan
Badihardugu Euskara Elkarteak
Tel: 943 12 17 75
admin@badihardugu.eus

